14 URTETIK AURRERA



HEARTSTOPPER
3. URRATS HANDI BAT

Gidoia eta irudiak: **Alice Oseman**
Itzulpena: **Naroa Zubillaga**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2025
Kolorea. Paper-azala
384 orrialde. 15,3 x 23,4 cm. 17 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-10332-63-8

AZAROAREN 6TIK AURRERA SALGAI

Heartstopper seriea **sei liburuk** osatzen dute, eta iritsi da **hirugarrena euskaraz.** Liburu honek **"milioika pertsona konektatu ditu mundu osoan"**, hala dio Carlota Bowmans-ek, gazte literaturaren alorrean erreferentziazkoa den *El templo de las mil puertas* aldizkariko kazetariak

Erromantze bat baino askoz gehiago

Nick eta Charlie, orain, elkarrekin daude, eta oso pozik daude, baina horrek ez die bizitza erraz-ten. Nickek, alde batetik, amari kontatu dio Charlierekin dabilela, baina ez da gauza bera egitera ausartzen gainerako jendearekin. Charlie, bestalde, oso urduri dabil, gogoan baitu zeinen gaizki pasatu zuen bere homosexualitatearen berri jakin zenean, eta ez luke nahi Nickek bizipen bera izatea. Hainbeste larritzen da, apetitua bera ere galtzen baitu, oso modu kezkagarrian galdu ere. Baina bada albiste on bat: astebete pasatuko dute lagunekin batera Parisen. Bidaia bat elkarre-kin egoteko!

Hirugarren liburu honekin Alice Oseman bere serie ezagunaren erdibidera iritsi da. Liburuak 39 hizkuntzatara itzuli dira, 10 milioi ale saldu dira mundu osoan eta ikus-entzunezko egokitzapena ere egin dute, egilearen arabera, 2026an bertan amaituko dena, berak idatzi eta ekoitzitako film luze batekin, urte berean argitaratuko baita komiki-seriearen seigarren eta azken alea. *Urrats handi bat* izena du azken liburu honek, eta bertan kontatzen da nola finkatzen den Nicken eta Charlieren arteko harremana. Biak ere ongi sentitzen dira, baina nola jokatu orain besteen aurrean? Alice Osemanen kontakizuna pertsonaietan da aberatsa. Izan ere, komikia erromantzetik harago doa, arretaz eta naturaltasunez jorratzen baititu gaztaroari dagozkion hainbat gai unibertsal: gainerakoen begirada, estresaren kudeaketa, gurasoekiko komunikazioa, adiskidetasunen bilakaera edo anaia-arrebek jokatzen duten rola.

"*Heartstopper*-ek milioika pertsona konektatu ditu mundu osoan zehar: komiki hauetan leku seguru bat aurkitu dutenak ez ezik, baita erreferente bila dabiltzan umeak ere, edo are helduak ere, hunkitu egiten baitira beraiek ezagutu gabeko bizipenez betetako gaztaro libreago honekin".

Carlota Bouwmans, *El templo de las mil puertas*

ALICE OSEMAN (Kent, Ingalaterra, 1994) komikigile saritua da, idazlea, ilustratzailea eta gidoilaria. Bera da *Heartstopper* komiki-sailaren sortzailea. Sei alek osatzen dute saila, bertan LGBTQI+ giroko erromantzeak lantzen dira irakurle nerabeentzat, eta dagoeneko hamar milioi kopia baino gehiago saldu dira munduan eta 39 hizkuntzatara itzuli dituzte. Oseman bera aritu da Netflixentzat egindako ikus-entzunezko egokitzapenaren gidoilari eta ekoizle. Osemanen liburuek hainbat sari irabazi dituzte edo hainbat saritarako aukeratu eta izendatu dituzte, besteak beste, YA Book Prize, Inky Awards, Carnegie Medal eta Goodreads Choice Awards sarietarako. Euskaraz, *Heartstopper*-en lehen lau liburuak 2024an eta 2025ean argitaratu ditu Astiberrik. Azken biak, bosgarrena eta seigarrena, 2026an argitaratzea aurreikusten da.

Heartstopper
1. Bi mutilen enkontrua
288 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-08-9

Heartstopper
2. Zu etxerako!
320 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-09-6

...
Eee
Gaya zarela? Hori al da?
Ze, dagoeneko badakigu. Iaz esan zenigun, gogoratzen?
Ez da hori!!

Mu...
Mutil laguna dut.
Zeinen ongi!
Hau poza, Charlie! Nola du izena?
Ee...